

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

367 zb.
www.getxo.eus

>> 2022ko Maiatza



GETXO UZTAILA 5 > 12 URTE
HIRIKO
UDALEKUAK

Bategin, ekimen solidarioak uda desberdin bat gozatu ahal izateko

Bolunta, Bilbon egoitzan duen Boluntariotza eta gizarte-partaidetzako Agentziak uda solidario bat emateko aukerak aditzera eman ditu. **Bategin**ek hilabete horietarako antolatutako hurrengo ekimenei buruzko informazioa ematen du: Auzolandegiak, turismo solidarioa, boluntariotza Bizkaiko entitaterekin, Brigadak, Astiko jarduerak, familia harrerak...

BATEGIN webgunea boluntarioentzat udan sortzen diren aukerak eta beharrak biltzen ditu. Datoren hilabeteotan **Bategin**ean ekimen gehiagori buruzko datuak sartzen joango dira. #bategin2022.

BEKAK SARIAK

* **2022ko Zetaren Ibilbideei buruzko 12 ikerketa-beka gazteentzat.** UNESCOk deitu du 35 urtetik beherako gazteentzat, eta ikerketaileak mobilizatu nahi ditu, Zetaren Ibilbideen ondare partekatua azterketan sakontzeko. 10.000 dolarreko 12 beka emango dira ikerketa-proiektu bakoitzeko. Interesatuak proposamenak ingelesen aurkeztu beharko dituzte. Eskerak aurkezteko epea datorren maiatzaren 31n amaituko da. Gaiak eta informazio gehiago: <https://labur.eus/HhPgL>

* **"Inspiraciencia" XII.Kontakizun Lehiaketa,** Kataluniako CSI-Cen Ordezkaritzak deitua, hurrengo bi kategoriatan: gazteak (12 urtetik 17ra) eta helduak (18 urtetik aurrera). Inspirazio zientifikoko kontakizun laburrak izan beharko dira, eta gai librea edo adimen artifiziala aukeratu ahal izango da. Aurkezteko epea maiatzaren 22an amaituko da. Informazio gehiago: <https://labur.eus/vCku8>.

Epea maiatzaren 13ra arte izango da eta 5 eta 12 urte bitarteko umeentzat izango dira

Herriko udalekuetan izena emateko epea zabalik

Datorren maiatzaren 13ra arte irekita egongo da Udaleko Gazteria Zerbitzuak 5 eta 12 urte (2022an beteta) bitarteko eta errolatutako umeentzat antolatutako herriko udalekuetan parte hartzeko izena emateko epea. Udalekuak Andra Mari, San Ignazio eta Romo herri ikastetxeetan eskainiko dira, uztailean zehar, bi aste txandetan banatuta. Lehenengo txanda ekainaren 30etik 14ra arte izango da, eta bigarrena 15etik 29ra bitartean.



Txanda bakoitzeko lau egunetan txangoak egingo dira herriko kanpora. Txangoa dagoen egunetan orduetia 9:00etatik 17:30era izango da, eta gainerakoetan 9:00etatik 14:00etara.

Behar bereziak dituzten pertsonen beharrezko laguntzak izango dituzte udalekuetara joateko. Aurten izenematea online soilik egin ahal izango da www.getxo.eus/gazteria

helbidearen bitartez. Behar izatekotan, Gazte Informazio Bulegoan (Algortako etorbidea 98, 94 466 03 53) lagunduko dute egiten, baina horretarako aurretik hitzordua eskatu behar da. Eskaera kopuruak plaza kopurua gaindituko balu zozketa egingo da eta behin betiko zerrendak maiatzaren 24an ezagutaraziko dira.

Deskontuak eskatuz gero, agiriak aurkeztu beharko dira eta bi txanda aukeratzeko badira, lehentasun-hurrenkeran jarri beharko dira.

Argibide gehiago: www.getxo.eus/gazteria helbidean edo Gazte Informazio Bulegoan (Tangora etxea, Algortako etorbidea 98, 94 466 03 53 /688 88 09 85) lor daitezke.

Romoko Gaztelekuaren programazioa

GureGune gaztelekuak

Maiatza

Hilak 6-13-20, ostiralak: TAILERRA: IBILBIDE FEMINISTA
Hilak 11, asteazkena: SUKALDARITZA: JANARI INGELESA
Hilak 14, larunbata: IRTEERA: UDAKO JAIA
Hilak 17, asteartea: EKINTZA: ARTILEZKO LOREAK
Hilak 21, larunbata: IRTEERA: BREAK ON STAGE
Hilak 25, asteazkena: EKINTZA: KAMISETA TINTATU
Hilak 28, larunbata: EKINTZA: LEGOAK
Hilak 31, asteartea: TAILERRA: DROGAK

Algortako Gaztelekuaren programazioa

GauEgun gaztelekuak

Maiatza

Hilak 6, 13 eta 20, ostiralak: PROIEKTUA: IBILBIDE FEMINISTA (BELDUR BARIK)
Hilak 10, astearta: MASTERCHEF: GOFREAK
Hilak 14, larunbata: IRTEERA: BIGSUP ETA KAYAK
Hilak 18, asteazkena: TXAPELKETA: SWITCH FIFA
Hilak 21, larunbata: IRTEERA: BREAK ON STAGE
Hilak 24, asteartea: JOLASA: XAKEA
Hilak 27, ostirala: MASTERCHEF: PIZZA
Hilak 28, larunbata: IRTEERA: COCO ROOM

DEABRU JOKOAK

Afrikara bidaiatu bat irabazi nahi duzu?

1.-

18-30 urteko 3 pertsonako talde bat sortu

2.-

Txikitako jolasak entsaiatu eta gazte lehiaketan parte hartu



Getxo

Bizkaia

kuna

AISIALDIA ETA TARTE LIBREAK UDAN

	EKINTZA	DATAK	ADINA	PREZIOA	HIZKUNTZA	IZENA EMATEKO EPEA	INFORMAZIOA
GAZTERIA	Hiriko Udalekuak	Uztaila	5-12	Kontsultatu	Euskara	Maiatzaren 2tik-13ra	Online: www.getxo.eus/gazteria
KUKUPRAKA LUDOTEKA	Udako Programa + 2022-2023 kurtsoa	Ekainaren 27tik irailaren 2ra arte 10 txanda	2011-2016 (biak barne)	Dohainik	Euskara	Maiatzaren 2tik 15era	Areetako Eskoletako plaza 94 466 03 55 - 688 81 28 86 areetakoludoteka@getxo.eus
GAUEGUN GAZTELEKUA eta GUREGUNE GAZTELEKUA	Ekintza Anitzak	Ekaina eta Uztaila	11-17	Aktibitatearen arabera	Euskara eta gaztelania	Ez dago	gaueregungaztelekua@getxo.eus 94 466 03 56 guregunegaztelekua@getxo.eus 635 70 65 26
GETXO KIROLAK	Haurrentzako eta gazteentzako kirol jarduerak (kirol-anitza, ur-jarduerak, tenisa, padela)	Uztaila, abuztua	4-17	Hainbat prezio	Euskara eta gaztelania	Maiatzak 6 (eta plaza libreak izanez gero, ikastaroak hasi arte)	Fadurako eta Gobelako arreta bulegoak edo getxokirolak.getxo.eus webgunean
GETXOKO KIROL KLUBAK	Atletismoa, kirol egokitua eta inklusiboa, errugbia, eskubaloia, futbola, gimansia, igeriketa eta irristaketa	Uztaila, abuztua	3-17	Hainbat prezio	Euskara eta gaztelania	Kontsultatu kirol klubeekin	Fadurako eta Gobelako arreta bulegoak edo getxokirolak.getxo.eus webgunean
BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA	Udaleku Irekiak	Ekainaren 27etik uztailaren 29ra (hiru txandatan)	2010 eta 2017 (biak barne)	Bazkideek: 45€ Ez-bazkideek: 60€ Oinarritzako errenta kobratzen dutenek: 25€	Euskara	Maiatzaren 16tik 20ra arte	www.bizarralepoan.eus Martikoena kalea 16, 2. solairua 4. bulegoa; 48992 Getxo 94 491 0387 info@bizarralepoan.eus
UDAL LIBURUTEGIA	Letren Terrazak	Uztailaren 5etik 29ra: Iturgitxi, Neguri enparantza, Sarri enparantza. Abuztuaren 2tik 26ra: Algorta Geltokia, Areeta Geltokia eta Aldapa parkea	Adin guztietarako	Dohainik	Elebiduna	Ez da beharrezkoa	
KIROLETAN SPORT	Kirol anitzeko campusa Gobela kiroldegian eta Romo ikastetxean Basket campusa %100 Fadura kiroldegian eta Andra Mari ikastetxean	Ekainaren 22tik Uztailaren 29ra	3-14 urte 6-14 urte	30 - 550 €	Euskara eta gaztelania	Maiatzaren 10etik Ekainaren 15era	kiroletan sport 94 608 59 33 Igor 662 940 436 igor.l@kiroletansport.info www.kiroletansport.com kiroletan sport 94 608 59 33 Fran 657 77 35 23 getxosaski@gmail.com admin@kiroletansport.info www.kiroletansport.com
UTOPIAN	Antzerkia / Dantza / Musika	Uztailaren 4tik 15era	2010-2015	175€ ume bakoitzak bi aste	Euskara eta gaztelania	Maiatzaren 20tik 27ra arte	Utopian 944303194 utopiangetxo@gmail.com
ZIRRI MARRA	Arte Tailerrak	Ekainaren 27tik irailaren 9ra arte	2008-2019 (biak barne)	Asteko: Astea 100€ 2. Neba/arreba 90€	Euskara eta gaztelera	Irekita Apirilaren 25etik aurrera	Zirri Marra Arte Tailerra 944916186 - 688811696 zirrimarrarte@gmail.com

UDAKO AISIALDIRAKO EKITALDI ESKAINTZARI BURUZKO ARGIBIDE GEHIAGO: GAZTE BULEGOA (ALGORTAKO ETORBIDEA, 98).
 TEL: 94 466 0353
gaztebulagoa@getxo.eus